

MARIA MARKOTEGI SARIAK

2017



LH 5 ETA 6 · DBH 1-4 · BATXILERGOAK · ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK



Parte hartzaileak:

Lehiaketa honetan bizitokia edo ikastetxea Sakanan duten ikasleek har dezakete parte.

Sailak:

Lehiaketak hiru sail izanen ditu: **narrazio laburra, poesia eta komikia.**

Kategoriak:

Lehiaketaren sail bakoitzean honako kategoria hauek bereziko dira:

- LHko 5. eta 6. mailetako ikasleena.
- DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleena.
- DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleena.
- Batxilergoak eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleena.

Lanak aurkezteko epea:

Lanak aurkezteko epea 2017ko martxoaren 17an bukatuko da, eguerdiko 15:00etan. Lehiaketan parte hartzeko lanak ikastetxeek aurkeztu ahal izanen dituzte ikasleen izenean. Lanak Sakanako Mankomunitateko erregistroan aurkeztuko dira, honako helbide honetan:

Mank
s a k a n a

Sakanako Mankomunitatea

Uriz 32 · 31830 LAKUNTZA

948 464 840

euskara1@sakana-mank.eus

Lanak aurkezteko modua:

Lan guztiak goitizen batez izenpetuko dira. Aparteko gutun-azal batean egilearen datuak sartuko dira (izen-abizenak, nortasun agiriaren zenbakia, helbidea, telefonoa, e-posta, ikastetxea, maila eta adina) orri batean idatzirik. Gutun-azalaren kanpoko aldean garbi adierazi beharko dira honako hauek: lanaren izenburua, egilearen izengoitia, saila eta kategoria. Ezin izanen dira lanak multzoka aurkeztu, hau da, lan bakoitzak bere gutun-azala izanen du. Aurkezten diren lan guztien egileek oroigarria jasoko dute.

Baldintzak:

- Lanak originalak, aurrez saritu gabeak, argitaratu gabeak eta euskaraz sortuak izanen dira.
- Gaia librea izanen da.
- Ez dira bertsopaperak ametituko.
- Lanek ondoko luzera izanen dute: olerkietan 14 lerro gutxienez eta 40 gehienez; komikietan orrialde bat gutxienez eta 5 gehienez; eta narrazio laburretan LHko 5. eta 6. mailetako ikasleek orrialde bat gutxienez eta 3 gehienez; DBHko ikasleek 2 orrialde gutxienez eta 5 gehienez eta Batxilergoak eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleek 3 orrialde gutxienez eta 8 gehienez.
- Literatur lanak ordenagailuz idatzirik aurkeztuko dira, Arial letra mota erabiliko da eta 12 puntuko hizki-tamaina.
- Komikiak zuri-beltzean edo koloretan aurkeztuko dira, Din A4 tamainan. Ordenagailuz edo eskuz egin daitezke.
- Lanak bakarkakoak izanen dira. Ez dira taldekako lanak onartuko.
- Ikasle bakoitzak gehienez ere lan bana aurkez dezake sail bakoitzean.

Sari banaketa:

Sari banaketa ekitaldi publiko batean egingen da.

Sariak:

MAILA	KOMIKIA	POESIA	N. LABURRA
LH 5-6	1. saria: 50 € 2. saria: 40 €	1. saria: 50 € 2. saria: 40 €	1. saria: 50 € 2. saria: 40 €
DBH 1-2	1. saria: 70 € 2. saria: 60 €	1. saria: 70 € 2. saria: 60 €	1. saria: 70 € 2. saria: 60 €
DBH 3-4	1. saria: 90 € 2. saria: 80 €	1. saria: 90 € 2. saria: 80 €	1. saria: 90 € 2. saria: 80 €
Batxilergoak eta HZ	1. saria: 110 € 2. saria: 100 €	1. saria: 110 € 2. saria: 100 €	1. saria: 110 € 2. saria: 100 €

Argitalpena: Sakanako Mankomunitateak lehiaketara aurkeztutako lanak argitaratzeko eskubidea izango du, paperean zein webgunean, betiere egilearen izena adieraziz.

Epaimahaia: Epaimahaiko kideak Sakanako Mankomunitateko lehendakariak izendatuko ditu. Epaimahaia irakaskuntzan eta euskal kulturen nor diren lau kidek eta Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuko teknikari batek osatuko dute. Azken honek idazkari lanak egiten ditu. Aurkeztutako lanek gutxienezko mailarik ez badute, sariak eman gabe utzi ahal izango dira. Era berean, sariak *ex aequo* moduan banatu ahal izanen dira lan batzuen artean. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izanen da.